



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Marisa Martins mezzosopranoak eta Miquel Ortega piano-jotzaileak Lied Arriagan zikloaren laugarren edizioa itxiko dute

- Bihar asteartea, ekainaren 9a, 19:30ean antzokiko atarian izango den kontzertuan, Mompou, Poulenc, Guastavino, Vila eta Ortega beraren piezak joko dituzte.
- Lied Arriagan datorren denboraldian itzuliko da, bosgarren edizioan, beste sei errezitaldi eskaintzera.

**Bilbon, 2026ko ekainaren 8an.-** Arriaga Antzokiak LIED ARRIAGAN zikloaren laugarren edizioari bukaera emango dio bihar, asteartean. Ziklo honek formatu txikiko errezitalak eskaintzen ditu, pianoarekin eta ahotsarekin, oro har, Arriaga Antzokiko foyerreko giro intimo eta atseginean. Denboraldiko azken emanaldia **Marisa Martins** mezzosopranoak eta **Miquel Ortega** piano-jotzaileak eskainiko dute.

XX. mendeko eta XXI. mendearen lehen laurden honetako lieder-sorkuntzaren barruan, Espainia, Frantzia eta Argentina nabarmendu dira, oro har, melodiarekiko fideltasunari eusteagatik, egileek erabilitako tratamendu harmonikoa gorabehera. Marisa Martinsen eta Miquel Ortegaren errezitaldi honek XX. mendeko hiru konpositoreren obrak hurbilduko dizkio publikoari. Ordena kronologikoan, Federico Mompou, Francis Poulenc eta Carlos Guastavino dira konpositoreok. Bestalde, XX. mendean jaiotako bi musikagileren piezak ere interpretatuko dira. Aurreko mendean obra asko sortu bazituzten ere, jardunean jarraitzen dute. Mariona Vila eta Miquel Ortega bera dira.

Dagoeneko gurekin ez dauden konpositoreei buruz dena esan da. Mompou, Poulenc eta Guastavino hiru egile handi dira, eta ondo merezitako lekua dute historian. Bizirik dauden egileei dagokionez, aipatzekoa da Mariona Vilaren obra —oso berria— Miquel Ortegak estreinatu zuela 2024ko abenduan, zikloaren helburu izan zen Víctor Jiménez Díaz kontratenorrarekin batera. Kontzertuari amaiera emateko, Miquel Ortegaren bi obra interpretatuko dituzte. Horietako batek Federico García Lorcaren lau testu biltzen ditu, eta 1990eko hamarkadan konposatu eta estreinatu zen. Azkenik, Urrezko Mendeko testuei buruzko zikloari dagokionez, 2018ko amaiera eta 2019ko hasiera bitartean konposatu zuen Ortegak, eta Jesús López Cobos de Toro Nazioarteko Jaialdian estreinatu zuten Conchi Moyano sopranoak eta Aurelio Viribay piano-joleak. Plazer handia izango da obra horiez guztiez gozatzea Marisa Martinsen ahotsaren eta Ortega maisuak pianoan erakusten duen dotoreziaren bidez.

### Lied Arriagan zikloa

Arriaga Antzokiak Lied Arriagan zikloa eskaintzen jarraituko du datorren denboraldian, bosgarren edizioa ospatuz. Aurreikusitako egitaraua honako hau da: **Rafael Fingerlos**

**eta Rubén Fdez. Aguirre** (urriaren 13an), **Luken Munguira eta Aurelio Viribay** (azaroaren 17an), **Pilar Alva-Martín eta Rubén Fdez. Aguirre** (2027ko urtarrilaren 27an), **Begoña Gómez eta Jesús López Blanco** (martxoaren 9an); **Álvaro Basco eta Llum Colomer** (apirilaren 8an), eta **Mercedes Gancedo eta Rubén Fdez. Aguirre** (ekainaren 9an).

#### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)